

## Surfeko asteburua izan dugu MONDRAGON UNIBERTSITATEko ikasleentzat

2016/04/04

Surfean mugildurik eman dugu aurreko asteburua.

Angelun ospatu zen Uhaina, frantziako unibertsitate surf txapelketa eta bertan izan ginen MONDRAGON UNIBERTSITATEA bi ordezkeriekin, Joseba Berasategi (surf) eta Gorka Aginagak (bodyboard). Mikel Elizaldek ere parte hartzekoa zen, baina Zarautzen ospatutako mundu mailako (WQS Pro Zarautz) txapelketarako gonbidapena zuen eta gu ere bertan egon ginen zortetik onena eman nahian.

Uhainari dagokionez, goizeko 8:00tan hasi zen txapelketa, eta olatu handiak iragarrita, txandak bata bestearen ostean jarraian joan ziren.

Josebak, hiru tanda pasatu zituen eta final laurdenetan kanporatua izan zen, oso maila altua erakutsi zuten surfista frantzesen eskutik.

Gorkaren kasuan, finalerditan kanporatu izan zen puntu bategatik.

Beti bezala, eskerrak eman gure ordezkarietara eta frantziako unibertsitateetako kideei, parte hartzeko gonbidapena emateagatik.

Argazkiak gure [facebookean](#).



Joseba Berasategi txuriz,  
MONDRAGON UNIBERTSITATEko  
ikaslea, surfeko bere txanda  
hasteko prest